

D.E.B.A.

0. zenbakia (2024ko abuztua)

Oiartzun

**DAGOENARI
EGOKITU ALA
BORROKARA
ATXIKITU**

Aurkibidea

Globalean pentsatu (lokalean ekin)

Dena ezbaian

Herritik Herrira

ZAD, alternatibak eraikitzen

Alternatiben Oi(h)artzuna

Hiz egin dezagun

Kultura politikoa

Yakolvev 42: Adierazpen Askatasunaren kasu bat jomugan

Lasai, nik kontatukoizut

"La Ertzaintza que viene" liburuaren aurkezpena

Palestinarekin Oi(h)artzuna

Landetxeko horma-irudiaren aurkezpena

Gure ohiturak deseraikitzen

Antolakuntza: ongarritzea helburu

DENA EZBAIAN

"Garaien kalamitatea zoroek itsuak gidatzen dituztenean"

William Shakespeare

Dena ezbaian dago, dena abiadura handian aldatzen ari da: Krisi ekonomikoa, finantzieroa, energetikoa, ekologikoa, gerrak, baloreen krisia, buruko gaixotasunen pandemia (hau bai pandemia!)...baina politikarientzat eta komunikazio hedabideentzat dena "euskaldisney" a da, ez dago krisirik, ez dago arazorik. Jarraitu kontsumitzen, jarraitu oporretara urrutira joaten, jarraitu pantailen fikzioan, gainera faszismoa ere garaitu egin omen dugu.

Egoeraren larritasunez jabetuta, errealtateari aurre eginez, dagoen eta datorren munduaren egoera aztertu nahi dugu. Zergatik mundua? Gaur egun, Txinako pinpilipauxa baten hegaldiak ere Europan ondorioak dituelako. Horixe da globalizazioa.

1. METAKETA KAPITALISTA

Krisi hau, kapitalismoaren historiako handiena, gertatu da kapitala, bere forma guztietan, inoiz ez bezala zentralizatu den garai batean; metaketa bat, bizkortu egin dena 4. industria iraultzan (informatika, robotika, adimen artifiziala, neurozientzia) izandako aurrerapen zientifikoen eraginez.


Oligarkiak, zeinak finantza, industria eta merkataritza kapitalaren gune nagusiak kontrolatzen baititu, behar

ditu gaur egun, bere zerbitzura dauden gobernuen bidez, beharrezkoak diren erabaki politikoak hartzeko, kapitalismoak krisialdi guztiei aurre egiteko bultzatu izan dituen eraldaketak ezartzeari begira, alegia: lehiakortasun gutxienerako kapitala erabat suntsitzea; enpresa handiak jabe gutxi batzuen esku geratzea; eta merkatua "saneatzea" berriro ere abian jartzeko, joko arauak aldatuta.

Itxuraz, milaka marka lehiatzen dira merkatutan eta herritarrei ere hala iruditzen zaie; alabaina, praktikan, kapitalaren zentralizazio prozesuaren eraginez, enpresa nagusi erraldoi gutxi batzuk enpresa (marka) handien jabe dira, eta, aldi berean, enpresa handi horiek beste enpresa ertain batzuen jabe, eta azken horiek txiki askoren jabe, errusiar panpinen jolas maltzur batean bezala.

Esate baterako, elikagai ontziratuen marka guzti-guztien jabe dira hamabi enpresa nagusi hauek: Pepsi Co., Coca-Cola, Nestlé, General Mills, Kellogg's, Unilever, Mars, Kraft Heinz, Mondelez, Danone eta Associated British Foods.

Enpresa nagusi horiek elikagai ontziratuen industria monopolizatzen dute; izan ere, haien jabetzakoak dira eskuragarri dauden elikagai marka ia denak (ikusi hurrengo grafikoa).



Enpresa zentralizazioa elikagaien industrian. Iturria: Grow - Oxfam. Organic Consumer.

Hamabi enpresa horiek burtsan kotizatzen dute, eta administrazio kontseiluek zuzentzen dituzte, non akziodun nagusiek erabakiak hartzeko ahalmena baitute. Akziodun nagusi horiek zein diren bilatuz gero, aurrekoaren gainera dagoen oligopolio are handiago bat topatuko dugu (kasu honetan, duopolio bat, alajaina), bi enpresa agertzen baitira sistematikoki enpresa nagusi horien akziodun instituzional nagusien artean: Vanguard Group Inc. eta Blackrock Inc.

Batzuetan, megaenpresa horiek hirugarren batekin partekatzen dute enpresen kontrola. Adibidez, Pepsi Co.n 3.000 akziodun baino gehiago dauden arren, Vanguard eta Blackrock enpresen partaidetza akzio guztien ia heren bat da. Pepsi Co.ren hamar akziodun nagusien artean, lehenengo hiru, hots, Pepsi Co.k, Blackrockek eta State Street Corporationek gainerako zazpiek baino akzio gehiago dituzte.


Ikus dezagun orain Pepsiren lehiakide nagusia: Coca-Cola Co. Pepsiren kasuan bezala, enpresaren akzio gehienak inbertsore instituzionalen esku daude; 3.155 guztira. Coca-Colaren lau akziodun nagusietako hiru Pepsiren berberak dira, hots: Vanguard, Blackrock eta State Street Corporation. Coca-Colaren akziodun nagusia Berkshire Hathaway Inc da (Warren

Buffet da haren jabea). Lau megaenpresa horiek —Vanguard, Blackrock, State Street eta Berkshire Hathaway— planetako lau inbertsio enpresa handienak dira.

Hortaz, Pepsi eta Coca-Cola ez dira, inondik ere, lehiakideak. Eta horixe bera gertatzen da elikagai ontziratuen gainerako enprekin: akziodun korporatiboen talde txiki horren jabetzakoak dira guztiak.

Aipatutako inbertsio megaenpresen oligopolioak beste industria guztiak menperatzen ditu. Esate baterako, 10 enpresa teknologiko handien artean honako hauek ditugu: Apple, Samsung, Alphabet (Google-ren enpresa nagusia), Microsoft, Huawei, Dell, IBM eta Sony.

Errusiar panpinen konfigurazio berbera dugu hor ere. Esate baterako, Facebook da Whatsapp eta Instagramen jabea. Alphabet Google-ren jabea da, baita hari lotutako negozio guztiena ere, YouTube eta Gmail barne. Horrez gain, Android garatzaile nagusia da, eta Appleren lehiakide nagusia.



Zentralizazio teknologikoaren adibidea. Alphabeten kasua. Iturria: No da munduaren jabea? Blackrock eta Vanguard (climaterra.org)

Microsoft da Windowsen eta Xboxen jabea. Orotara, lau enpresa nagusik ekoizten dute munduko ordenagailu,

tableta eta "telefono adimendun" ia guztien softwarea.

Alabaina, nor dira makroenpresa horien jabeak?

Facebooken akzioen %80tik gora inbertsore korporatiboen esku daude eta jabedun instituzional nagusiak elikagai industrian dauden berberak dira: Vanguard eta Blackrock. Bien bitartean, State Street Corporation bosgarren lekuan dago, akziodun nagusien artean.

Appleren lau inbertsore instituzional nagusiak hauek dira: Vanguard, Blackrock, Berkshire Hathaway eta State Street Corporation.

Microsoften hiru akziodun instituzional nagusiak hauek dira: Vanguard, Blackrock eta State Street Corporation. Marka teknologikoen (ordenagailuak, telefono adimendunak, aparatu elektronikoak eta etxetresnak fabrikatzen dituzten enpresak) zerrendari erreparatzen badiogu, horien akziodun nagusien artean behin eta berriro topatuko ditugu Vanguard, Blackrock, Berkshire Hathaway eta State Street Corporation.

2. SUNTSIPEN SORTZAILEA:

Aipatu kapitalaren pilatze horrek ordea, baditu bere baitan arazoak ere. Munduaren baliabideak mugatuak izaki, ziklikoki krisi egoerak pairatzen dira, zeintzuei, ongi diseinatutako berregituratze ekonomiko batekin erantzuten dieten. Eskaintza berriari heltzeko lehenengo zaharra suntsituz.

Nola gauzatzen dute hori?

Nagusiki bi bide erabiliz:

a) Alarma egoerak erabiliz neurri basatiak ezarri.

Shock egoerak baliatuta, izan pandemia, sumendiak, klima aldaketak edo dena delakoak... gutxi batzuen interesak bermatuko dituzten neurri gogorak hartzen dituzte herrien aurka. Orain enpresen eta lanpostuen suntsipen masiboaren ordua da; digitalizazioak, robotikak... gizakien lana ordezkatzeko dute. Horren ondorioz, milioika langile langabeziaren zuloan hondoratzen ari dira, enplegurik lortzeko inolako itxaropenik gabe, eta gazteen etorkizuna ere kolokan dago.

Bistan da egoera horrek, zeina atzeraezin gisa planteatzen baita, gizarte matxinada orokortuak ekarriko dituela eta horiek prozesu iraultzaileetan amai daitezkeela. Horren jakitun dira "Berrabiatze Handia" diseinatzen ari direnak.

Testuinguru horretan kokatzen da Covid pandemiaren kudeaketak mundu osora hedatu zuen kontrol sozialaren esperientzia masiboa. AEBko arma biologikoen laborategi batean, mikroorganismoa "funtzio irabaziarekin"; hots, haren ahalmen patogenikoa artifizialki areagotuta fabrikatzeak eta hura mundu osora zabaltzeak militarizazio neurriak ezartzea ahalbidetu zuten herrialde askotan eta, bereziki, AEBn eta EBn.

Botere ekonomikoa inbertsio funts handietan zentralizatzeak multinazional farmazeutiko handien kontrola dakar, eta, horien bidez, OMERena eta sendagaien agentziena, bereziki FDA (AEB) eta EMA (EB); era berean, hedabideak eta sare sozialak ere kontrolpean geratzen dira. Horrek guztiak ahalbidetu zuen, modu zentralizatu eta koordinatu batean eta

diziplina militarrez, zentsura ezartzea, izua hedatzea eta aginduak ematea, zeinak eroskeria onartutako gobernuek aplikatu baitzituzten.

Covidak eragindako izu psikosiak eta ezarritako errepresio neurri bortitzek — armadak eta errepresio gorputzek herriak eta hiriak okupatzea, besteak beste— ordura arte soilik gerra garaietan hartutako neurriak ia erresistentziarik gabe onartzea ekarri zuten, hala nola konfinamendua, ekonomiaren geldialdia eta oinarrizko eskubide eta askatasunen etetea.

Gertakari horien guztien eraginez, milaka enpresa txiki eta ertain suntsitu dira, eta klase menderatzaileek egiaztatu ahal izan dute nola azpiratu daitezkeen gizarteak izaki otzanek osatutako giza taldeak bihurtzeraino eta nola izaki horiek gai izan daitezkeen ere azpiratuak izatea onartzen ez dutenak salatzeke eta erreprimitzeko. Faxismoaren garai onenetan bezala. 2021ean Davoseko Munduko Ekonomia Foroan bildutako oligarkia pozarren zegoen, egiaztatu ahal izan baitzuen, alde batetik, gizarte diziplina ezartzea eraginkorra izan zela, eta, bestetik, aurrerapen azkarra eman zela digitalizazioan, lan telematikoan, Covid pasearen inplementazioan, banku txartelaren erabilera masiboan (herritarrak kontrolatzeko mekanismoen aurrekariak) eta Interneteko erosketen orokortzean.

Dena dela, konfinamenduak izugarri areagotu zuen, bereziki, sare sozialen erabilera, telesailak ikusteko ohitura eta, gazteen artean ehienbgar, “on line” jokoen hedadura; izan ere, haien plataformek eta edukiek, enpresa teknologiko handiek ekoizitakoek, ihesbide masibo bat eskaintzen dute, geroz eta oldarkorragoa den errealtatea

saihesteko eta isolamendura bultzatzen dituzte herritarrak, gizarte harremanak suntsituta.

Suizidioen igoera izugarria —gazteen artean gehienbat, baina baita haurren artean ere— eta antsiolitikoen eta antidepressiboen kontsumoaren gorakada bizimodu horien inplementazioak gizakien gogamenean izandako ondorio dramatikoak dira; izan ere, bizimodu horiek, non pertsonak zonbi bakartien antzera jokatzen baitute, oinarrizko tresnak dira haien menperatze proiektua ezartzeko, erresistentziarik gabe.

Bitarteko horien guztien jomugan, batez ere, gazteak daude, langile klasearen seme-alabak, kapitalismoaren birkonfigurazio horrek ez baitie etorkizunik eskaintzen erresistentziaren protagonista nagusiak izan beharko luketen horiei. Langile auzoetan drogak modu masiboan sartuta, gazte horiek gizarte bizitzatik baztertzea eta izaki pentsatzaile gisa deuseztatzea — erabakiak hartzeko gaitasunik gabe utziz — ezinbesteko baldintzak dira proiektu kriminal hori ezartzeko.

Bestalde, kapitalismoaren birkonfigurazio prozesu hori aldaketa drastikoak eragiten ari da, nazioarteko harremanetan. Alde batetik, AEB, mendebaldeko inperialismoaren erdigunea, kapital industrialari ari da suntsitzen, eta suntsipen hori bereziki ari da gertatzen Europar Batasuneko herrialdeetan, aurrerago azalduko ditugun hainbat mekanismoren bidez; bestetik, “mendebaldeak” sustatutako gerraren eta zigorren bidez, Asiako, Afrikako eta Latinoamerikako geroz eta herrialde gehiago ari dira bat egiten Errusiak eta Txinak bultzatutako “mundu multipolarrarekin”.

Covid pandemiaren kudeaketak AEBk gidatu eta EBk zorrotz bete zuen modu berean, AEB bere interes geoestrategiko eta ekonomikoen arabera neurriak ezartzen ari da EBren autosuntsipen ekonomikorako eta, inoiz ez bezala, NATOren bidezko menpekotasun militarreko, eta Europako gobernuak otzantasunez ari dira neurri horiek onartzen.

b) Gerrak

“Gerra elkar ezagutzen ez duten pertsonen arteko sarraski bat da, elkar ezagutzen duten baina elkarren arteko sarraskirik egiten ez duten pertsonen probetxurako” (Paul Valery). Gerra definizio horren arabera ulertzen badugu, argiago jabetuko gara gertatzen ari denaz.

Gerra horiek krisi garaietan gertatzen dira beti. Eliteek, biztanleria gutxitzeko, frontera bidaltzen dituzte herritarrak elkarren artean akabatu daitezten. Bestalde, kolapso egoeran den ekonomia suntsitzen dute, gero berriro eraikitzeko. Nork eraikiko du? noren enpresek? Horri “suntsipen sortzailea” deritzo.

Zer hobe historiari begiratzea baino: 1914ko abenduaren 3an, Alemaniako parlamentuaren gehiengoak, Errusiaren aurka gerra joateko kredituen alde bozkatu zuen; sozialdemokrazia gehiengo horren parte zen. Kredituak eskatzearen aurkako boto bakarra egon zen. Karl Liebknecht botoa izan zen, Rosa Luxemburgen borroka adiskidea. Honako hau esan zuen parlamentuan: “Gerrako kredituen aurkako nire botoa honela justifikatzen da: gerra hau, parte hartzen duten herrietako bakar batek ere nahi ez duena, ez da hasi ez herri alemanaren ez beste ezein herriren onurarako. Gerra inperialista bat da.

Industria eta finantza kapitalismoaren interesean, gerra honek munduko merkatuak kontrolatu eta lurralde garrantzitsuak politikoki nahi ditu menperatu (...) Hazten ari den langileen mugimendua adoregabetzeko eta suntsitzeko saialdi bat ere bada. Igarotako hilabeteek hori erakutsi digute (...). Herri alemanaren eta errusiarraren liberazioa herriak berak eskuratu behar du”.

Anglosaxoiek Europa Errusiatik bereizteko historikoki izan duten interesa EBn inposatzen ari da, bere autosuntsipenaren protagonista bihurtuz. NATO Moskuren aurka egiten ari den gerra, funtsean, Europaren aurkako gerra bat da, gertatzen ari dena bai EBk bere kideen eta, batez ere, Alemania bere potentzia nagusiaren interes ekonomikoen logika oinarritzkoenaren aurka jarritako zigorren bidez, bai EBri ezartzen ari zaizkion aurrekaririk gabeko gastu militarren bidez.

Dagoeneko bukatuta zegoen eta Errusiatik gas merkea eta bikaina Europara iristea ahalbidetuko lukeen Nord Stream II gasbidea gelditzeak — AEBk hala inposatuta —, Erresuma Batuak haren instalazioetan egindako sabotajeak eta Errusiari gasa eta petrolioia erostea eragozten duten zigorrek izugarri garestitu dute energia, Europako industria hondamendira eramanez eta langile klaseari bere oinarritzko beharrak asetzeko aukera eragotziz neguari begira.

Horren aurrean, AEBri fracking bidez ateratako gas likidotua erosteko alternatiba, Errusiak Ukrainan esku hartu baino hilabete batzuk lehenago inposatutakoa, askoz ere garestiagoa da, eta gainera, eskasa. EBko gobernuen menpekotasuna bereziki

deigarria da Espainiako Gobernuaren kasuan. PSOE-UP gobernuak Saharan Marokoren subiranotasuna aitortzean, saharar herriari traizioa egiteaz gainera, arriskuan jarri du Aljeriako gasaren hornidura, zeina dagoeneko % 70 garestitu baita.

Europako enpresen suntsipena areagotu egin da EBZk, AEBko Erreserba Federalari jarraituz, interes tasak izugarri igotzearen ondorioz. Emandako aitzakia “inflazioari aurre egitea” izan da; inflazio hori beraiek sortu zuten kredituaren bitartekoa orokortzearen alde eginez, 0 inguruko interes tasekin, eta, batez ere, dirua artifizialki sortuz (Erreserba Federalak eta EBZk 22 bilioi dolar ekoitzi dituzte ezerezetik azken lau urteetan).

Horren emaitza, kasualitate hutsa ez dena, enpresen itxiera eta lanpostuen galera masiboa izan da, bai eta elikagaien, biziraupenerako oinarrizko produktuen eta etxeko energiaren garestitzea ere, milioika familia muturreko egoeran utzita.

Horri guztiari gastu militarren aurrekaririk gabeko igoera historikoa gehitu behar zaio, zerbitzu publikoak desegitearen eta pribatizatzearen kargura, non osasun arloa nabarmentzen baita; joera bat, ematen zena jada, PP, PSOE eta eskuin nazionalisten babesarekin, 15/97 Legea onartu zenetik. Unidas Podemos alderdiaren hauteskunde konpromisoak gorabehera, Legeak bere horretan jarraitzen du.

EBren eta langile klasearen bizi baldintzen autosuntsiketa hau gertatu da, hain zuzen, Europako oligarkiek eta haien zerbitzura dauden gobernuek parte hartzen dutelako botere gune handiek diseinatutako “suntsipen

sortzailea” proiektu kapitalistan. Gerta daitezkeen gizarte altxamenduen aurrean kapitalaren dominazioa ziurtatzeko, alde batetik, gizartearen militarizazioa dago, Covid pandemian dagoeneko probatu zena, eta, bestetik, gainerako lege errepresiboak, non nabarmentzen baitira Segurtasun Nazionaleko Legea eta Zigor Kodearen aldaketa berria, gizarte mobilizazio saialdi oro zigortzeko xedea duena.

3. MUNDU TEKNOZIENTIFIKO BERRIA

Bizitzaren birdiseinu eta birkonfigurazio baten aurrean gaude, bizirik dagoen ororen aurkako gerra teknologiko baten aurrean. “Berrabiatze Handia” edo “4. industria iraultza” dei dezakegun proiektu teknokratikoak honako helburu hauek ditu: gizarte transhumanista, gizarte postbiologikoa eta gertaera edo prozesu natural ororen artifizializazioa. Haien asmoa da (ez baita prozesu natural bat, elite bat dago atzean) industria ekonomiak errotik aldatzea eta haien ordeztasuna bat ezartzea, modu dramatikoan aldatuko dituen nazioarteko gobernantza ereduak, merkataritza ereduak eta lan motak. Horrek merkataritza eredu eta arau berriak ekarriko ditu; lan egiteko, kontsumitzeko eta ekoizteko forma berriak... Ekonomiaren eta Politikaren diseinu berri horrek mundua inbertsio funtsen, Munduko Ekonomia Foruaren, Big Techen eta enparauen esku utziko du. Talde horiek produkzio eta banaketa bitartekoen kontrolaren bidez egiten diete aurre munduaren ekonomia eta ingurumen erronkei. Estatuak, praktikan, gure bizitzak kudeatu eta gidatuko dituzten teknokrata horien esku gera daitezke.

Algoritmoak organismoa ordezkatzeko du; mekanikoak, biziduna; artifiziak, naturala; kalkuluak, intuizioa; metodoak,

bat-batekoa; horretan datza, hain zuzen, proiektu teknokratikoa.

elkarrizketatik hartu dugu “Mundu teknozientifiko berria” atal egiteko.

Azken batean, sistemak hondamendiaren gobernu baten bidez funtzionatzen du, non larrialdiak etsai komunak baitira eta estatua zientzia eta teknologia salbatzaile gisa ageri baitira, sistema beraren funtzionamenduak eta logikak sortutako arazoak konpontzeko.

Herritarren artean hedatutako izua dela eta, are errazago onartu da ia jarduera ororen eraldaketa, robotizazio, mekanizazio eta automatizazio handia, non makinak gu ordezkatu gaituen eta gu haren esklabo bihurtuko garen.

BIBLIOGRAFIA

“Una aproximación a las claves del poder sionista mundial concominante con la centralización y concentración del capital” idatzitik hartu dugu “Metaketa kapitalistaren” atala egiteko.

Andres Piqueras. Kastelloneko Jaume I unibertsitatean Antropologia eta soziologiako irakaslea.

“Crisis capitalista, pandemia, militarización y guerra. El imprescindible análisis global de la ofensiva capitalista contra la clase obrera” idatzitik hartu dugu “Suntsipen sortzailea” atala egiteko.

Angeles Maestro. Medikua eta politikaria izandakoa.

“Contra toda nocividad. Una experiencia de lucha frente al tecnomundo. Entrevista al colectivo CTN”. Revista Ekintza zuzena, 50. zkia

ZAD, ALTERNATIBAK ERAIKITZEN

ZAD (frantsesetik Zone A Defendre), elkarbizitzaren ospakizuna da. Zoritxarraren aurrean, jende talde batek sortutako mugimendu iraultzailea da.

Nantes ondoan dagoen Notre Dame des Landes herrian desjabetutako 1650 hektareatan jaio zen ZADa, 2009 urtean frantziar gobernuak eta Vinci multinazional erraldoiak aurrikusitako aireportuaren oinarrian hain zuzen.

Urte hartan hasi zuten, gerora 200etik gora lagunek osatutako autonomia esperientzia.

Azpimarratzekoa da, bertan topatutako jendearen aniztasuna, laborariak, proiektuaren kontrako militanteak, lur eta etxeak okupatzera

joandakoak...jatorri politiko, sozial eta kultural ezberdinetako kideak batu ziren.

Bizigune ezberdinetan bizi dira bertakoak, kolektiboak lur edo eta etxe bat hartu eta oinarrizko puntu bihurtzen dute. Horixe da denentzako aterpe nagusia eta hortaz gain, partaide bakoitzak bere lotokia du kolektiboaren eremuan. Dena den, talde bakoitzak antolaketarako formula ezberdinak jarri ditu praktikan.

Guztiak batzen dituen ametsa errealitate alternatibo bat eraikitzearen borroka da, estatutik eta kapitalismotik independenteagoak izateko asmoz.

ZADen bizitzeak, dagoenarekin gauza



berriak transformatzean datza, autosufizientziaren aldeko oihua da. Gai praktikoetan autonomoagoak izatea dute helburu ZADistek, sistemaren uztarritik at garatzea bertakoen artean. Hortxe baitago gakoa, legalitatearen barruan inoiz ez baitzen sortu izanen ZAD, bertakoek kudeatzen dute beren bizitzeko eta antolatzeke modua.

Guztiak ere gobernuak ezarritako lurralde antolaketaren aurka daude, garapen jasangarriago, ekologikoago eta gizartearen aldekoaren apostua egiten dute.

Abereekin lan egiten dute, bertatik bizitzeko modua bilatzen dute, eta hortarako, diruan ez oinarritutako trukearen aldekoak dira.

Zadeko okupazio mugimenduko jende asko, autonomia mugimendutik dator. Badira anarkismo bat aldarrikatzen duten hiritik eta karrikatik heldu diren batzuk, janaria berreskuratzeko abilezia dutenak, merkatuko hondarrak edo supermerkatuko soberakinekin bizi direnak, badira bere baratzeak lantzen dituzten beganoak, baina baita baratze emankorrak lantzen dituztenak ere, gero kontsumo taldeetan banatzen dutelarik jasotako uzta.



ZADeko biztanleen tresnen artean, elkarbizitzarako nagusia asanbladak edo biltzarrak dira, batzarrak ezberdinak beharren arabera, mugimendu orokorrarenak, okupatzaileenak, lan taldeenak, barne gatazkak moldatzeko...bertakoek elkar ulertzeko ezinbestekoak. Hortaz gain, komunikazio tresnak ere oso baliogarriak bultzatu dituzte, esaterako, ZADnews astekari autokudeatua eta Klaxon irratia.

2018ko udaberrian kanporatzeko operazio militarra jasan zuten ZADeko biztanleek baina dena den, erresistentzia taldeak mantentzen dira bertan, gune askearen esentzia bermatzeko asmoz.

Ez diote gauzak egiteari utziko kanporatuak izatearen beldurrez, ZAD beste askorentzako exenplu bilakatu da eta orduz geroztik, behar gabeko proiektu erraldoi guztiek ZAD izena hartzen dute, askatasunerako haziak ereiteko guneak sortuz.



HITZ EGIN DEZAGUN

Euskal Herrian, oro har, eta baita Oiarzunen ere, noski, herritarren militantzia politiko eta soziala oso presente egon da azken hamarkada luzeetan. Mundu berri baten ametsa indartsu zegoen, etsaia argia zen eta aldaketa beharra ezinbestekoa. Sinesten genuen elkarrekin, herriaren antolaketaren bitartez, gauzak aldatu genitzakela. Eta antolatu ginen, eta erresistentzia-borroka gogoangarriak egin genituen, eta sortu genituen egitasmok eta egitura garrantzitsuek indarrean zegoen boteretik at. Mende honen hasieratik, hala ere, iraultzaren paradigma asko aldatu da. Mundu berria irudikatzen ere apenas heltzen gara eta, beraz, ez dago estrategia eraldatzaile bateratu eta argirik. Elkarrekin egoteko eta komunikatzeko moduak ezberdinak dira, erritmoak azeleratu egin dira eta militantzia ulertu eta praktikatzeko moduak zeharo aldatu dira (militantzia ereduak ziurrenik bazuen berrikuspen beharra, baina hori beste baterako utziko dugu). Garai berri hauetan badirudi ez garela gai egia sendoak eraikitzeke, guztia dela erlatiboa, likidua esango lukete askok, eta "gu"-aren (gehiegizko?) zentralitatetik, "ni"-aren erabateko protagonismora pasa garela, bakoitza nor bere baitan biltzeraino.

Baina aldaketarako beharra, egon, badago, badakigu. Egungo eredu kapitalista ankerrean batzuen ongizatea besteen miseriaren gainean eraikitzen da, ez da geopolitikaz edota ekonomiaz gehiegi jakin beharrik horretaz

jabetzeko. Ezberdintasun ekonomikoak esponentzialki areagotuz doaz, natura baliabideak xahutzen ari gara mugarik gabeko "desarrollismoa" bultzatzearen ondorioz, "produktiboa" ez den guztiaren desbalarizazioa sistemikoa da eta, bizi dugun neoliberalismoak, gainera, gizartea bakantzen eta indibidualismora darama, horrek dakartzan ondorio guztiekin: desmobilizazio soziala, gaixotasun mentalen gorakada, bakardade sentsazioaren areagotzea eta, azken finean, zorigaitza.

Azken mendean egindako lanak, herri antolaketa sendo baten oihartzunak, badirau, hala ere, neurriren batean. Belaunaldi berriek ere jaso dute legatu hori nolabait eta indarrean dagoen eredu neoliberalak dakarren lozorro eta paralisi soziala gaindituz lanean jarraitzen duten herritar asko dugu gurean: auzoetako jai batzordetan, aisialdi, kirol eta kultur elkartetan, asanblada feministetan, naturaren defentsan, internazionalismoan, gazte erakunde politikoetan... Aurrean dugun "etsaiak", dena den, ez gaitu antolatuak nahi, ez zaio errentagarri, eta lanean jarraituko du bere interesen kontra doan antolaketa oro deuseztu arte: burokrazia jasanezina ezarriko du horretarako, isilaraziko gaituzten legeak asmatu, isunak eta zigorrak ezarri... Eta bide sotilagoak ere erabiliko ditu bere helburuak lortzeko, zorientasun-bide faltsuak irudikatuz, desira artifizialak sentiaraziz, irtenbide indibidualen isilbidezko apologia eginez borroka kolektiboen aurrean. Mozorro berdea

ere jantziko du, eta gorria, eta morea, gu engainatzen saiatzeko. Etsai faltsuen aurka borroka egitera bultzatuko gaitu eta, eraldatzailea eta askatzailea delakoan, bere interesak eta posizioak indartu besterik egiten ez dituen aldaketak egitera bultzatu nahiko gaitu. Anabasa horren erdian ez gara gai lasaitasunez pentsatzeko, boterea eta kontraboterea bereiztea ere kosta egiten zaigu eta, beraz, "guztia" aldatzea gure esku ez dagoenez, edo hori zer den ere ez dakigunez, "zerbait" aldatzeak ezertarako balio ez duela sentitzen dugu.


Baina noski merezi duela. Kapitalismoari eta merkatuaren logika lukratiboari kentzen diogun espazio zati oro gure eta gure ondorengoen ongizatearen eta zorientasunaren mesederako izango da. Horixe da erronka, eta herritik bertan ere badugu zer egina: bizitzarako beharrezkoak diren jarduerak (elikadura, energia, etxebizitza, zaintza...) tokian toki modu komunitarioan kudeatzea lortu behar dugu, herritarrek egitasmoen jabe eta partaide eginez. Aurrean jartzen dizkiguten amuak identifikatuz eta baztertuz, desira eta behar artifizialeatik deslotura eginez. Eguneroko praktika eraldatzaile eta burujabetatik abiatu gaitzen komunitatea (bir)saretzera, Euskal Herriak urteetan zehar egin izan duen moduan, badugu nondik tira. Indarrean dagoen boteretik ihes egitea ahalbidetuko diguten egitasmoak behar ditugu, herritarren antolaketaren bitartez herri boterea lortzeko. Norbanakoa ahaztu gabe komunitatea indartuz, handitasunetik eta abiaduratik, xumetasun eta lasaitasunera igaroz.

Balirudike, agian, oso urrun daudela helburu horiek eta nondik hasi (ber)asmatzea ere oso zaila dela. Baina, azken urteetan, Oiartzunen bertan,

helburu eta logika hori jarraituz egitasmo oso interesgarriak sortu dira modu autoeratu eta komunitarioan. Horren adibide ditugu, esaterako, Labore Oarso egitasmoa, Elika Kooperatiba, Argitturri Oiartzungo Energia Berriztagarrien Komunitatea edota Zituene Pasta Obradore Kooperatiboa, besteak beste. Ekonomia sozial eraldatzailearen oinarriak aintzat hartzen dituzten proiektuak guztiak ere, lukroaren logika itogarri eta bidegabetik ihes egin nahi dutenak. Komunitatearen laguntzaz sortuak, komunitateari ekarpena egiteko. Herritarren saretzea eta ahalduntzea dakarten egitasmo horizontalak dira, aberastasunaren banaketa justuagoa lortzea ahalbidetzen duten ekimenak.

Fanzine hau irakurtzen ari zareten askok ezagutuko dituzue ekimen hauek, eta baita antzeko logikan eta antzeko helburuekin sortutako beste hainbat egitasmo ere. Batzuk barrutik lan egingo duzue haietan, beste batzuk bazkide izango zarete, edo bezero, edo abal-emaile. Beste askok, seguraski, ez duzue proiektu horiekin harreman zuzenik izango eta, beharbada, zuetako batzuek ez duzue usteko harremana edukitzeak ezertarako balio duenik ere. Fanzine honen datozen argitaraldietan herrian bertan ditugun egitasmo eraldatzaileak sakonago ezagutzeko aukera izango dugu. Proiektu hauen atzean dauden printzipio eta baloreak ezagutuko ditugu eta komunitatearen sostenguaren beharraz eta instituzioek jokatu beharreko paperaz hausnartuko dugu. Egitasmoen atzean dauden pertsonak ezagutuko ditugu, sortzen diren lanpostuen inguruan hitz egingo dugu, bidean aurkitzen dituzten trabez, etorkizuneko erronkez. Ekonomiaz hitz egingo dugu, eta elikadura burujabetzaz, eta lehen sektoreaz, eta trantsizio ekosozialaz, eta deshazkondeaz, eta

emozioez, eta elkarren beharraz.
Herritar bezala gure inguruko ekonomia
eta gizartea eraldatzeko dugun botereaz
hausnartu nahi dugu, gure bizimoduak
eta hartzen ditugun erabakiek duten
ahalmen eraldatzaileaz. Hitz egin
dezagun, beraz.



YAKOVLEV 42: ADIERAZPEN ASKATASUNAREN KASU BAT JOMUGAN

Yakovlev 42 musika taldeak 2015ean ekin zion bere ibilbideari. Hasieran lau kidek abiatu zuten arren, berehala bostekoa eman zioten taldeari. Dinamismo eta sormen handia erakutsi zuten lehen urteetan, eta urtero disko bat argitaratu zuten lehen bost urteetan. Beraien estiloa, streetpunka, gitarra azkarrak eta kritika sozialeko gaiak izan dira. Mezu gordinak jorratzen dituzten letra oso politikoak dira eurenak. Espainiako testuinguruan, adierazpen-askatasuna eztabaidarako gai errepikakorra izan da, batez ere musikari eta gai politiko eta sozialei aurrez aurre heltzen dieten beste arte-modu batzuei dagokienez. Pablo Hasel eta Valtònyc raperoen kasuak bezalakoek agintarien eta artisten arteko tentsioak agerian utzi dituzte, eta terrorismoa goratzearen eta gorroto-delituaren aurkako legeak adierazpen artistikoa mugatzeko erabil dira. Yakovlev 42ren kasua esanguratsua da, gatazka horiek berak islatzen dituelako eta galdera garrantzitsuak planteatzen dituztelako gizarte demokratiko bateko adierazpen-askatasunaren mugei buruz.

KASUAREN TESTUINGURUA

Yakovlev 42 taldearen aurka gorroto-delituaren akusazioak aurkeztu dituzte Guardia Zibilaren txosten batean oinarrituta. Txosten horren arabera, haren letrek eta jarduerak indarkeria eta intolerantzia sustatzen dituzte. Gaur egun, sei kide eta taldekide ohi ikertzen ari dira, eta maiatzaren 6an deklaratu behar izan zuten Donostiako

Instrukzioko Epaitegian.

TXOSTENAREN XEHETASUNAK ETA AKUSAZIOAK

Guardia Zibilaren txostenaren arabera, Yakovlev 42ren letrek indarkeria sustatzen dute, eta, horren ondorioz, gorroto-delituak ikertzen ari dira. Ikertutako letren artean "Ruleta rusa" abestia dago, "Pon una pistola en tu sien/Esta vez no sale bien/La bala ya se entró/Tu cabeza reventó" bezalako bertsoak dituena. Agintariak indarkeriazko diskurtsotzat eta indarkeriaren gorazarretzat hartu dute eduki mota hori. Endika Loiola taldeko kideak honela azaldu du: "Ezker muturreko taldea izatea besterik ez digute leporatzen, eta gure abestiekin poliziaren edo Gobernuaren zenbait ekintza salatzea, halakoak esatea gustatzen ez baitzaie". Loiolaren arabera, taldearen ia abesti guztiak ikertzen ari dira. Gaineratu duenez, Guardia Zibilaren txostena "nahiko txosten latza da, eta iruditzen zaigu ez dagoela oso prestatuta". Gainera, Loiolak aipatu du Guardia Zibilaren inolako agenterik ez dela bertaratu hauen kontzertuetara, eta "Facebookeko gure orriko pantaila-irudiak" baino ez dituztela bildu.

ERREAKZIOAK ETA ELKARTASUNA

Akusazioei erantzunez, elkarretaratzeak deitu ziren Oiartzunen eta Donostian, "Adierazpen askatasunaren aurkako erasorik ez" lelopean. Yakovlev 42k gure

jendartean dauden hainbat erakunde eta sektoreen laguntza jaso du. Taldeak ohar baten bidez salatu zuenez, zitazio judiziala "pertsona eta artista guztiok izan beharko genukeen adierazpen askatasunaren eta askatasun kulturalaren aurkako eraso argia da". Loiolak adierazpen askatasunari buruzko kontzientziaren garrantzia azpimarratzen du, batez ere Pablo Hasel bezalako beste artista batzuk antzeko delituengatik kondenatuak izan diren testuinguru batean. "Iristen da puntu bat zeinetan zure buruari galdetzen diozun ea zerbait egin duzun gaizki zuri horrelako zerbait leporatzeko, baina lasai gaude. Denok dakigu zer esaten dugun eta nola egiten dugun ", dio.

EUSKAL HERRIKO AURREKARIAK

Euskal Herrian aurrekari esanguratsuak izan ditugu adierazpen askatasunaren aurkako erasoei dagokionez. 1990eko hamarkadan, Negu Gorriak taldeak, Guardia Zibileko Galindo teniente koronel baten salaketa bati aurre egin zion, ustelkeria salatzen zuen "Ustelkeria" abestia zela eta. Absolbitu zituzten arren, kasuak aurrekari bat ezarri zuen adierazpen askatasunaren aldeko borrokan. Beste kasu nabarmen bat Sociedad Alkoholikarena da, beren letren edukia dela-eta akusazio eta presioei ere aurre egin behar izan dietelako, gai politiko eta sozialak modu kritiko eta zuzenean jorratzen baitituzte. Oraintsuago, Iruñeko Black Marfil rap abeslaria ikertu dute, agintarien arabera gorrotoa sustatzen duten letrengatik. Adibide horiek beren musika nahigabea eta kritika soziala adierazteko erabiltzen duten artisten aurkako zentsura- eta errepresio-eredu bat erakusten dute.

ESTATUKO BOTEREAREN ARIKETAREN ANALISIA

Estatuak gorroto-delitutik babesteko legeak erabiltzen ditu ezarritako ordenari aurre egiten dioten artistak eta taldeak jazartzeko. Legearen erabilera horrek mugatu egin ditzake adierazpen artistikoa eta kritika politikoa, ordena eta segurtasuna mantentzeko premian oinarrituta. Yakovlev 42ren kasuak erakusten du agintariek nola erabil ditzaketen legezko tresna horiek ahots disidenteak zapaltzeko eta interes espezifikokoak babesteko.

ADIERAZPEN ASKATASUNEAN DUEN ERAGINA

Pablo Hasel eta Valtòny-en kasuek aurrekari kezkarriak ezarri dituzte Espainiako adierazpen-askatasunari buruz, eta eragina izan dute oinarrizko eskubide horren pertzepzio publikoan eta errealitatean. Yakovlev 42ren egoerak bat egiten du adibide horiekin, gobernua eta segurtasun-indarrak kritikatzeko dituzten artisten aurkako jazarpen- eta zentsura-eredu bat erakutsiz.

ONDORIOAK ETA GOGOETAK

Epe luzera, jazarpen horiek eragin sakonak izan ditzakete Espainian arte- eta adierazpen-askatasunean. Herritarren elkartasuna eta mobilizazioa funtsezkoak dira eskubide horiek defendatzeko, Yakovlev 42k nabarmentzen duen bezala: "Sistema nagusirako alternatibak eraiki behar dira, eta pentsamendu kritikoa sustatu behar da komunitate- eta hezkuntza-oinarri batetik".

Yakovlev 42 bezalako taldeen borroka funtsezkoa da gizarte demokratiko batean adierazpen askatasuna babesteko. Erresistentzia eta elkartasun komunitarioa funtsezkoak dira Estatuaren botereak ezarritako murrizketen aurrean.

"LA ERTZAINZA QUE VIENE" LIBURUAREN AURKEZPENA

Maiatzaren 21an gonbidatu genuen Ahoztar Zelaieta bere azken liburuaren inguruko hitzaldi bat emateko: La Ertzaintza Que Viene. Hitzaldi horretara hurbiltzeko aukerarik ez zenuen izan? Lasai, nik kontakoizut.

Polizia-ereduaren gaia pil-pilean dugun honetan, aberasgarria izan zan oso Zelaietak emandako hitzaldia, eta baita hitzaldiaren ondoren sortutako solasaldia ere. Hitzaldia hasi, eta lehenengo hitzak esan orduko argi geratu zitzaidan ze informazio iturri aberats eta ikerketa sakona egin duen gai horri buruz. Benetako ikerketa-kazetari baten aurrean gauden seinale.

"La Ertzaintza Que Viene, Tecnologia de Hipervigilancia y Capitalismo de Consultoria"; gehien saldutako liburua izan Durangoko Azokako Txalaparta argitaletxearen standean. Bai liburuarekin eta baita hitzaldiekin ere, idazlearen asmoa da azken urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzen den bigilantzia eredu teknologikoaren berri ematea, eta nolabait ere, alerta piztea. Izan ere, poliziak, delitu teknologikoak ikertzearen argudiopean, edozein talde, kazetari eta talde politiko zelatatzea ere badu helburu.

Aipatu bigilantzia teknologiko prozesu hori zein enpresaren eskutik egin den jakiteko, Ahoztar Zelaietak Ertzaintzaren ehunka kontratu ikertu ditu. 2018tik 2024ra bitartean 5.000 milioi euro gastatuko dira Ertzaintzan, eta horietatik 154 telekomunikazioan eta informatikan.

Hor dugu polizia-eredu berria norantz doan erakusten duen iparrorratza. Esaterako, Bearing Systems enpresa israeldarra Ertzaintzak komunikazioetan esku hartzeko duen sistemaren egilea da, eta baita Ertzaintzak berak telefono mugikorretatik datuak ateratzeko duen beste harraminta batena ere. Gainera, enpresa hori NSO Group erosten saiatu zen. NSO Groupek Pegasus spywarea garatu zuen, gogoan baduzue, spyware hori independentista katalanak zelatatzeke erabili zen.

Hari beretik, Ertzaintzaren barne komunikazioetan esku hartzeko sistemaren mantentze lanak egiteko lizitaziorako Israelgo hiru enpresa aurkeztu dira, hirurek Pegasus spywarea banatzen dute. Hori gutxi ez, eta EAJk Madrilgo espioitzagatik azalpenak eskatzen zituen bitartean, hemen Spyware Pegasuseko hiru banatzaileekin lotutako kontratu bat sekretupean zegoela adierazi zuen.

Teknologia hori guztia erostea ez da Ertzaintzaren barne komunikazioen esku-hartzera mugatzen, baizik eta ezkutuko eragiketetarako, errekonozimendu biometrikorako, bideozaintzarako eta abarretarako puntako teknologiko tresnak ere eskuratzen ari dira. Eusko Jaurlaritzaren eta Israelgo Estatuaren arteko elkar ulertzea duela hamarkada batzuk hasi zen, eta puntu nagusietako bat segurtasunaren atala da. 90eko hamarkadan, Israelgo erakunde publiko eta pribatuak prestakuntza praktikoa

ematen aritu ziren Ertzaintzan. Gerora, Israelgo enpresak arduratu dira Arkauteko segurtasun pribatuaz, superkuartelez eta baita epaitegiez ere.

Estatu espainiarreko poliziek erabilitako teknologiei buruzko txostenetan, Ertzaintzaren teknologia ezezaguna da oraindik, Ertzaintzaren tresna ezagunen atzean (brigada mugikorra eta gomazko pilotak) Ertzaintzak teknologia-baso oso bat ezkututzen du, eta aitzindari izan da Israeli erosten. Tresna hauekin guztiakin aurpegi-ezagutzaren bitartez, (Reconocimiento Facial) 300.000 aurpegiko datu-basea sor daiteke. Dakigunez, 1983tik 2014ra Ertzaintzak 69.000 polizia-fitxa egin zituen.

Polizia-teknologiaren arloko hobekuntza horietaz hitz egiten dugun bakoitzean, milioika eta milioika euroko gastu publikoaz ari gara hizketan. Agenteez kamerak eramango dituzte uniformeetan, eta sartu ezin duten lekuetan bideo-kameradun droneak erabiliko dituzte. Gaur egungo bideozaintza-sistemari helikopteroen, kamera ezkutuen, adimen artifizialaren eta abarren sistema berriak gehituko zaizkio.

Testuinguru hau guztia ulertzeko, egungo gizartea ere ulertu behar da, izan ere, portaera sozialak aldatu egin dira. Aldaketa soziologiko hauek ez dira borondatezkoak izan, ez dira naturalki gertatu, baizik eta komunikazioak kontrolatzeko eragindako aldaketak izan dira. Horren adibide dira gaur egungo makro ekitaldiak. Lehen, jendea areto txikietara joaten zen kontzertuetara, poliziaren esku hartzea zailduz, baina administratibotik jokabide horiek zigortzen hasi ziren, diru publikoarekin finantzatutako beste ekitaldi mota batzuk bultzatuz, hala nola BBK Live

Festivala, Euroligako FinalFour-a, Gasteizen edo Europako Errugbiko Txapelaren Kopa, Bilbon. Eta, jakina, jendetza dagoen gunek direnez, jendearen segurtasuna bermatu behar da. diotenez. Esaterako, Ertzaintzaren droneekin, etabarrekin.

Jendeak ustezko segurtasun hori eskertzen du, eta normaltzat hartzen du, horrek guztiak dakarren arriskuez jabetu gabe. Krimenak prebenitzeko eta saihesteko gai ez direla frogatu den arren, hiperkonputazioa, IA eta Big Data erabiltzen ditu Ertzaintzak, kanpora begira itxura ona eman ahal duelako, baina, batez ere, ondo datorkiolako pertsonak, kolektiboak eta abar katalogatzen laguntzeko.

EAJK horrekin ez du ezer asmatu, Europa mailako kudeaketa neoliberaletako eredu orokorretik edaten du, sektore pribatuko enpresa handiek bultzatuta eta erakunde publikoek lagunduta. Hala ere, egia da Ertzaintza aitzindaria izan dela bideozaintzan, 90eko hamarkadatik hasita, ADN laginekin datu-baseak sortzen, adibidez. Aspaldiko obsesioa da bigilantzia, eta eredu berriak ez ditu obsesio horiek gainditu.

Zelaietaren solasaldia argigarria bezain beldurgarria izan zen polizia zalantzan jarri eta kritikatzin dugun pertsona guztientzat. Zalantzarik gabe, teknifikazioa bera panazea moduan salduz errepresio-makineria zaharra eguneratzen ari da. Teknifikazio horrek ez ditu teknika zaharkituak bazterrean utziko eta horien orde seguruagoak eta gizatiarragoak jarriko, baizik eta errepresio-makineria zaharra osatzen, eguneratzen eta sofistikatzen jarraituko du.

Eiger

LANDETXEKO HORMA-IRUDIAREN AURKEZPENA

Urtarrilaren 7an, Palestinarekin elkartasunez herritar talde batek Landetxen egindako horma-irudia aurkeztu zen.

Axier Bergaretxek bertso batzuekin hasi zuen ekitaldia, eta jarraituz, horma-irudiaren sustatzailetako batek ekimenaren nondik norakoak azaldu zituen. Boikota, Desinbertsioak eta Zigorrak (BDZ) taldeko ordezkari batek hitza hartu zuen ondoren, Palestinaren egoeraren berri emateko. Israelgo produktuen boikot zerrenda gogorarazi zuen eta hauetako batzuk sutara bota zituzten. "Martxa baten lehen notak" abestuz eman zitzaien amaiera ekitaldiari.



ANTOLAKUNTZA: ONGARRITZEA HELBURU

Herritarrak antola daitezen lan egiteko konpromisoa hartzen dugu/dut. Kolektiboa antolakuntzaren bidez ahalduntzen da; antolatuta egoteak boterea ematen dio herriari. Horregatik, antolakuntza ongarritzea helburu duten erakundeei balioa emateko konpromisoa hartzen dugu/dut. Boterea kalean egon behar da zuzenean, eta erakundeak horretarako tresnak izan behar dira. Erakundeen endogamiaren kontra borrokatzeko konpromisoa hartzen dugu/dut. Endogamia hori alderdien aparatizazioaren emaitza da eta, haren ondorioz, ekintzaileok garrantzi handiagoa ematen diogu gure erakundearen estatusari, jendearekin egin beharreko lanari baino

Lehendik dauden edota sortzen diren erakunde, sindikatu eta gizarte-mugimendu berrien arteko harremanak, elkar ulertzea eta adiskidetasuna bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu/dut, baldin eta herritarren parte-hartzerik ahalik eta zuzenean oinarritzen den demokrazia bultzatzen badute.

"Ongi bizitzeko 100 konpromiso"


Lurralde askea (2017)

D.E.B.A.



Hiru

gomendio...



D.E.B.A. FANZINEAN PARTE HARTU NAHI DUZU?

ZURE IRITZIA ARGITARATU?

IDATZI HURRENGO HELBIDERA!

debafanzinea@gmail.com